

JUANITA IBAIBARRIAGA

Juanita Ibaibarriaga Ermuko Iturriaganeko etxean jaio zen. Irakurle amorratua eta emakume jantzia zen.


Beste zenbait gurasorekin batera, Ermuko familia elkartean, Anaitasuna ikastola aurrera ateratzeko borroka egin zuen. Bere seme-alabei etxerako lanak egiten lagunduz, euskaraz irakurtzen eta idazten zaletu zen. Juanitak Ermuko hizkuntza, ohiturak eta abestiak berreskuratzen parte hartu zuen.

Drogetenitturri herri aldizkariako hasierako zenbakietan kolaboratzaile jardun zuen.

Ermuko Udaleko Euskara Sailak, ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko asmoz, literatur lehiaketa bat antolatzea erabaki zuen. Lehiaketari izena jartzeko hainbat proposamen egon ziren; denen artean, Juanita Ibaibarriagarena nagusitu zen.

Hortaz, 1992. urtean, Juanita Ibaibarriaga Literatur Saria sortu zuen. Geroztik, urtero antolatu du lehiaketa. Herrian euskararen alde lan handia egin zuen Juanita Ibaibarriagaren omenez gazte zein helduentzako literatur sari hau ospatzen da. Sari honen helburua herritarren artean euskaraz idazteko zaletasuna piztea da.



- 
- Zein etxetan jaio zen Juanita Ibaibarriaga?
-

- Zein izan zen bere borroka?
-

- Zer berreskuratzen parte hartu zuen Juanitak?
-

- Zein aldizkariko hasierako zenbakietan kolaboratzaile bezala parte hartu zuen?
-

- Zertarako antolatu zuen Ermuako udalak literatur lehiaketa bat?
-

- Zein urtetan sortu zen Juanita Ibaibarriaga Literatur saria?
-